

Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea



Harremanak. Hartu eta eman

Harremanak izena jarri genionean gure elkarte-
ari. Akaso, ez nintzen guztiz kontziente izan
hasiera batean hitzaren esanahiaz. Txusak
esan zidan arte “harremana” hitzak “hartu eta
eman” esan nahi zuela. Eta hara! Gure lan ko-
puru handiena hartu-emanari eskaintzen dio-
gu; lankideen artean harremanak lantzen ditugu eta harre-
manak goxatzen saiatzen gara. Harremanak eta tratu onak
gure ikasleen artean, eta guraso eta irakasleei jarraibideak
eskaini beraiek ikasleekin eta seme alabekin landu ditzaten.
Izan ere, azkenaldian de-
zente korapilatsuak dira
haurren arteko harremanak
eskoletan. Batzuetan adin
berekoen arteko gatazkak
izaten dira, besteetan mutil
eta nesken artekoak... Ohi
denez, batek hartu nahi eta
eman ez, eta bestea eman
eta eman agortu arte.

Bizikidetzak egitasmoak
lantzen ditugu, geletako
harremanak hobetzeko as-
moz; diagnostikoak egin,
eredu ezberdinak erakutsi,
ikasleek sentitzen dituzten
emozioak landu...

Zein emozio egon daiteke
haur edo gazte batengan
bestea jo, iraindu edota gu-
txiesteko? Gehienetan bel-
durra eta amorrua, eta, as-
kotan, baita inbidia kutsu
bat ere... Horri guk deitzen
diogu “zulo emozionala”,
“zulo beltza”.

**Gure lanean ikusi duguna-
ren arabera, denbora osoz
erasotzailea edo erasota-
koa denik ez dago. Aldiz,
gure ustez, bi pertsona
horiei etiketa horiek jar-
tzea euren gainean pisu
handia jartzea da; aurrera
egiteko zailtasunak, ozto-
poak jartzea.** Izan ere, era-
sotzaileari boterea eman
eta erasotakoari kendu egi-
ten zaio, azken horrentzat
egoerari buelta ematea ezi-
nezkoa izango balitz bezala.
Haur horiekin, heldu horie-
kin lan egin behar da, le-
hendabizi bortxakeria ego-

erak debekatuz, beharrezko protokolo guztiak martxan ja-
rriz, haurra babestua senti dadin, eta, gero, laguntza eskai-
niz. Erasotzailearekin, bere “zulo emozionala” non dagoen
detektatuz eta bere familiarekin, sistemarekin, irtenbideak
eta baliabide emozionalak eskainiz. Erasotakoarekin, ordea,
autonomia, konfiantza landuz, trebetasun sozialak eraku-
tsiz, bere “Ni”-a defendatzen erakutsiz. Biolentziak hautsi-
tako zauri emozionalak sendatuz, baina ahaztu gabe indar-
keria ahalbidetzen duen sistema osoaren lanketa ere egin
behar dela. *Bullying* kasu guztietan familia guztiekin egiten

dugu lan, ulertzen dugula
ko oso zaila dela bestela ir-
tenbidea topatzea.

Eta, horrelaxe, harrema-
netan murgildurik gabiltza
lanean, hurrekin, familie-
kin, irakasleekin, aholkula-
ri eta orientatzaileekin...
Jendarte osasuntsu baten
alde, harreman eredu ez-
berdin bat amestuz, hau-
rrekin prebentzioa landuz.

Esan gabe doa, maitasu-
nak dena sendatzen duela,
eta pertsonak sendabidean
bidelagun bihurtzeko
la beraien saminei eta mi-
nei entzunda, Maialen Lu-
janbioren bertso zoragarri
hark ederki islatzen zuen
moduan...

ALTZOA

Helduok bihotzean
zenbat harramazka
bizitzaren bizitzez
indarrak gasta
nekeak eta minak
askotan arrasta
uzten gaituzte eta
hori nola aska?
Bihotzeko zazta
bizkarreko lazta
banoa arnaska
hartzen nau xarmaz ta
altzoa da helduok
dugun sehaska

[2013-12-15, Barakaldo.
Euskal Herriko Bertsolari
Txapelketa Nagusia.
Maialen Lujanbio] •



Maitasunak dena sendatzen du. GAUR8

osasuna / hiriaren lo(r)aldia / harremanak

3 BEGIRADA: